

## **a.1 TALDEA SORTZEN**

### **> Gure ardia**



#### **Helburuak**

- Umeei gela eurena dela sentitzen laguntzea.
- Talde-egitura sortzea.
- Jabetza sentimendua lantzea.

#### **Prozedura**

- Ume bakoitzak ardi bat aukeratu.
- Hezitzaileak ume bakoitzari eskatu duen ardiaren plantilla banatu.
- Plantillekin eta kartulinekin ume bakoitzak bere ardia egin.
- Ume bakoitzak bere ardiaren aurpegian norberaren argazkia itsatsi.
- Gelako atean eszenatokia eta ardi guztiak itsatsi.

#### **Oharra**

- Hezitzaileak umeen argazkiak eta eszenatokia aurretik prestatzea komeni da.